



Albisteak

Justizia Euskaraz Elkartea sortu da

Justizia arloan euskaraz diharduten hainbat epaile, abokatu prokuradore, legelari zein unibertsitateko irakaslek *Justizia Euskaraz Elkartea* sortu dute, Justizia Administrazioan euskararen erabilera bermatzeko asmoz. Euskara arlo publiko zein pribatuan erabiltzeko oinarrizko eskubidea aintzat hartuz, Zuzenbideko profesionalak biltzen dituen elkarte honek Justizia Administrazioan euskararen normalkuntzaren aldeko pausoak ematea du xede, harreman zein prozedura eginbideak euskaraz gauza ahal izan daitezen eta inork ez dezan diskriminaziorik paira hizkuntza eskubideak egikaritu nahi izateagatik.

Elkarte honek Esteban Umerez Argia abokatua du presidente, eta Ipar zein Hego Euskal Herrira zabaltzen da bere jarduera eremua. Aldarrikapen bidez gain, halaber, eztabaida, iritzi eta informazio foro ere izan nahi du *Justizia Euskaraz Elkartea*.

Erregistro Zibilean Estatuko hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera

Espainiar Konstituzioko 3. artikuluari jarraiki, zeinaren arabera, berezko hizkuntza daukaten autonomia erkidegoetan hauek ere ofizialak izango baitiren Autonomia Estatutuak horrela jasoz gero, aurrerantzean hizkuntza koofizialak erabili ahal izango dira Erregistro Zibileko idazpenetan. Izan ere, atal berri bat erantsi zaio 1957ko Erregistro Zibilaren Legeko 23. artikuluari (ikus ekainaren 23ko Estatuko Aldizkari Ofiziala), honela dioena: "Idazpenak gaztelaniaz edo Erregistro Zibila kokatuta dagoen autonomia erkidegoko berezko hizkuntza ofizialean egingo dira, agiria edo adierazpena jasota dagoen hizkuntzaren arabera. Agiria ele bietan egonez gero, Erregistrora eraman duenak aukeratutako hizkuntzan egingo da idazpena. Hori guztia, baldin eta autonomia erkidegoko hizkuntza legeriak erregistro publikoetako idazpenak hizkuntza koofizialean egiteko aukera aurreikusten badu". Hori horrela, Erregistro Zibileko liburutako orriak, inprimakiak eta ziguilak hizkuntza koofizialean ere egingo dira.


Ekintza judizialean erabili beharreko hizkuntzari buruzko Auzitegi Konstituzionalaren adierazpena

Auzitegi Konstituzionalak 2005eko apirilean adierazi duenaren arabera, epaile edo fiskal batek hizkuntza koofiziala ez jakiteak ez ditu auzipetuaren eskubide konstituzionalak urratzen. 2002ko otsailaren 28an, Bilboko epaitegi penal batean auziperatua zenak prozesua bere osotasunean euskaraz gauza zedila eskatu zuen, eta itzulpenik gabe. Eskakizun honekin aurrera eginez, bi urte geroago, 2004ko urriaren 1ean, Bizkaiko Entzutegi Probintzialak Auzitegi Konstituzionalaren aurrean planteatu zuen auziperatuaren eskaera. Oro har, Botere Judizialaren Lege Organikoko 231. artikulua konstituzionaltasuna aztertzeraz zuzentzen zen eskaera, zeinak xedatzen baituen ekintza judizial guztietan, epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegi zein auzitegi gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dutela, Estatuko hizkuntza ofiziala alegia. Auzitegi Konstituzionalaren hitzetan, "inolako funtsik gabea" da Bizkaiko Entzutegi Probintzialak planteaturiko helegitea, eta, halaber, adierazi du itzultzaileen parte hartzea dela hizkuntza eskubideak bermatzeko neurririk aringarriena.

Euskal Gaien Institutuaren web orri berria

Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak eduki erabilgarri berriez osatu du bere web orria (www.iev.deusto.es). Santiago Larrazábal Basáñezek zuzentzen duen erakundearen guneak, beste eduki batzuek gain, Liburutegi juridiko elebiduna (gaztelania/euskara) jarri du edozeinen eskura. Irakurleak Euskal Gaien Institutuak euskaratutako lege testuak eta Zuzenbideko berbategiak aurki ditzake bertan. Doan kontsulta daitezke, esaterako, Espainiako Konstituzioa, Kode Zibila, Zigor Kodea eta beste hainbat arau.

Euskarazko unibertsitate liburuen I. erakusketa



EIREK, Euskal Herriko unibertsitateetako Euskal Irakasleen Elkarteak, euskarazko unibertsitate liburuen I. erakusketa antolatu du urriaren 4tik 7ra bitartean, Bilboko EHU-BBK eraikinean. Erakusketa honetan, unibertsitate ezberdinetako argitaletxeek euskaraz plazaratutako liburuak jarri dituzte erakusgai, Batzorde Zientifiko baten onospena jaso dutenak, ikasle, irakasle eta hiritarren artean ezagutzera emateko. Euskarazko unibertsitate liburua, EIREK emaniko definizioaren arabera, unibertsitateko irakaskuntzan eta ikerkuntzan erabiltzen den argitalpena da, jatorriz euskaraz idatzi eta sortua, edo beste hizkuntza batetik euskarara itzulia.

Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza izan da erakuslearen babesle nagusia, eta laguntzaileak, berriz, honakoak: Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Mondragon Unibertsitatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Elhuyar, Eusko Ikaskuntza, Utriusque Vasconiae, Jakin eta BBK.

Agiriak.net, euskarazko agirien fondoa

www.agiriak.net web orriak, eguneroko harreman sozio-ekonomikoetan erabiltzen ditugun dokumentu zein inprimakiak euskaraz lortzeko bidea ematen digu. Azken urteotako lanari esker, mota ugariako idazkiak bildu dira bertan: lan kontratuak, elkarteak legeztatze estatutuak, ikastetxeetarako barne araudia, eutanasia egiteko baimena, etab. Urteak urtera agiri berriak erantsiko zaizkio fondoari, jendearen eskura ipintzeko.

Agiri hauetako batzuk dohainik eskura daitezke; beste batzuk jaisteko, baina, ordaindu egin beharra dago. Harpidetza eginez gero, halere, guztiak batera lor daitezke.

Justizia Saitetik zer berri?

Manuel María Zorrillak jaso du 2005eko Manuel de Irujo saria

Justiziaren arloan eginiko ibilbide profesionala eta haren balioak sustatzeko egindako ahaleginak goraipatzeko banatu ohi den Manuel de Irujo saria Manuel María Zorrilla jaunak jaso du aurtengoan, Euskal Autonomia Erkidegoko presidentente ohiak alegia. Lehendakartzaren egoitzan, Juan José Ibarretxe lehendakariaren eta Joseba Azkarraga Justizia sailburuaren eskutik jaso zuen saria, pertsona eta profesional gisa izan duen jardueraren eskertzeko.

Laugarren edizio honetako epaimahaia osatu dute, Azkarraga sailburuaz gain, Carlos Garaikoetxea eta José Antonio Ardanza lehendakari ohiek, Javier Ezkiaga, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanok, Juana Balmaseda, Bizkaiko Abokatuen Elkargoko dekanok, Margarita Robles eta Garbiñe Biurrun magistratuak, Alfonso Aya, Arabako Entzutegi Probintzialesko fiskal buruak, eta Peio Irujo, Manuel de Irujoren ilobak.

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak sorturiko sari hau, José María Lidón magistratuak, Juan María Bandrés eta Amnesty International erakundeak, eta Juan María Vidartek jaso dute aurreko edizioetan.

38 epaile espezializatu dira Euskal Foru Zuzenbide Zibilean

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Deustuko Unibertsitateak hitzarmen bat sinatu zuten 2002. urtean, epaileei Euskal Foru Zuzenbide Zibileko espezializazio ikastaroak emateko. Geroztik gaur arte, 38 epailek gainditu dute ikastaroa. Gogora dezagun Euskal Foru Zuzenbidean espezialista direnek lehentasuna daukatela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren lurraldeko epaitegi eta auzitegietan lanpostuak betetzeko orduan.

Eusko Ikaskuntzako azken berriak

Europarako Konstituzio Ituna aztertzekeo jardunaldia

Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailak Europarako Konstituzio bat ezarriko duen Ituna aztertzekeo jardunaldia antolatu zuen otsailaren 16an Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean, hain zuzen ere handik lau egunera, otsailaren 20an alegia, Konstituzio Itunaren inguruko erreferenduma egingo baitzen espainiar Estatuan. Gaia hain zabala izanik, Xabier Ezeizabarrenak eta Joxerramon Bengoetxeak koordinaturiko jardunaldian bi izan ziren aztergai nagusiak: Konstituzio Itunaren berritasun nagusiak batetik, eta herri, eskualde zein herritarrak Europa Konstituzionalean, bestetik.

Lehenengo atalean Juan José Álvarez Rubio, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua katedraduna, eta José Luis de Castro, Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko irakasle titularra, arduratu ziren azalpenak emateaz; eta bigarrenean, berriz, Maite Zelaia, Konstituzio Zuzenbidean doktorea, Xabier Ezeizabarrena abokatu eta Joxerramon Bengoetxea, Eusko Ikaskuntzako Europa-Euskal Herria ikerketa taldeko zuzendaria. Ekitaldia amaitzeko, mahai-ingurua egin zen, bertaratuek ere parte hartzekeo aukera izan zezaten.



Xabier Ezeizabarrena, Maite Zelaia, Joxe Mari Aizega eta Joxerramon Bengoetxea

Asmoz Fundazioaren master eta ikastaroak

Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioak hainbat Master, Graduatuondo ikastaro eta trebakuntza ikastaro eskaintzen ditu 2005-2006 ikasturterako; besteak beste, eta Zuzenbidearekin lotura handiena dutenak izaki, Nazioarteko Merkataritzako Masterra, Ingurumen Zuzenbidean Masterra, Giza Eskubideei buruzko Graduatuondoko Ikastaroa edota Europar Konstituzioari buruzkoa. Abokatutzan jarduteko, Praktika Juridikoko Eskola ere jasotzen du Asmoz Fundazioaren eskaintzak.

Master zein ikastaro gehienak on-line bidez ematen dira, ikaslearen erosotasunerako, baina badira erdipresentzialak eta presentzialak ere.

Argibide gehiagorako, deitu 943 21 23 69 telefonora, idatzi asmoz@asmoz.org helbide elektronikora, edota ikusi www.asmoz.org web orria.

Bibliografia

Monografiak

EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUA.
Europako Konstituzioa Euskaditik ikusita.

Vitoria/Gasteiz: Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua, 2005; 56 or.
Liburuxka elebidun honek, otsailaren 20ko errendumean bozkatutako Europar Konstituzioari buruzko azalpenak jasotzen dituzten zazpi artikulua jasotzen ditu; zehazki, Kepa Sodupe, Joxerramon Bengoetxea, José Martín y Pérez de Nanclares, Juan José Álvarez, José Luis de Castro, Gurutz Jáuregui eta Nicolás Mariscalek prestatutakoak.



Artikuluak

GALLASTEGUI, Cesar. "Mikel Arrutza (1890-1966), Bizkaiko Aldundiko euskarazko itultzaile". In: *Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 6. zenb., 2005; 61-73 orr.

Mikel Arrutza idazle eta euskaltzale bilbotarrak Bizkaiko Aldundiko itultzaile karguan izandako gorabeheren eta euskararen alde egindako ekarpenaren berri ematen zaigu artikulua honetan.



URRUTIA, Andrés. "Jean Etcheverry-Aintchart (1914-2003), notario euskalduna". In: *Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 4. zenb., 2004; 97-107 orr.

Notario baigorriar euskaldunaren figurari hurbiltzen zaio artikulua honetan Andres Urrutia, eta bere alderdietako hiru azpimarratzen ditu: Euskal Zuzenbidearen sustatzaile, Euskal Herriaren ordezkari eta euskaltzale moduan egin zuen ekarpena alegia.



JIMENO ARANGUREN, Roldán. "Zuzenbide penalaren bilakaera historiko-doktrinala: Hamurabiren kodetik Hugo Grotius-en teoriara". In: *Uztaro*, 51. zenb., 2004; 25-43 orr.

Artikulu honetan, ordenamendu juridiko penalaren bilakaera historiko-doktrinalaren ikuspegi orokorra ematen du egileak. Hainbat kultura juridikoren Zuzenbide penalak aztertzeaz gain, Zuzenbide komuna ere lantzen du, eta, halaber, Humanismoa eta Zuzenbide naturalaren teoria.



URRUTIA, Andrés. "Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibila eta Sabino Arana ahalduna". In: *Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 5. zenb., 2005; 65-81 orr.

Sabino Arana Goirik, Bartzelonan lege eta Zuzenbide ikasketak egina zituela, Bizkaiko Foru Zuzenbidearen bilakaera eta eraberritzeari buruz aurkeztutako planteamenduak jasotzen dira artikulua honetan.



Itzulpenak

GALLASTEGI, César; LARRAZABAL, Santiago; ETXEBARRIA, Arantza. *Konstituzio Zuzenbideko Berbategia / Vocabulario de Derecho Constitucional*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004; 53 or.

Ikasle, itzultzaile, kazetari eta, oro har, euskarazko irakurle guztiei zuzenduta dagoen berbategi honek Espainiar Konstituzio Zuzenbideko kontzeptu nagusiak, eta Zuzenbide zein Zientzia Politikoko oinarritzko hitz eta adierazpenak jasotzen ditu, euskaraz eta gaztelaniaz.

Hipoteka legeria / Legislación hipotecaria. Itzultzaileak: Eba Gaminde; Gotzon Lobera; Andrés Urrutia; Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2005; 878 or.

Hipotekaren inguruan gaur egun indarrean den araudia ele bietan jasotzen du esku-liburu honek; hots, 1946ko Hipoteka Legea eta berau betearazteko 1947ko Erregelamenduaz gain, 1093/1997 Errege Dekretua, Erregelamenduaren Arau Osagarriak onesten dituena, eta 2/1994 Legea, Hipoteka-maileguak Subrogatu eta Aldarazteari buruzkoa ere biltzen ditu.



Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

1.1. Lege proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpen eguna
Lurzoruari eta hirigintzari buruz	2004.10.19	2004.10.21

1.2. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpen eguna
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legea aldatzeari buruz	2005.06.21	Euskal Talde Popularra	2005.09.02
Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea berritzeko	2005.07.05	Euskal Talde Popularra	2005.09.02
Oinarrizko errenta 18 urtetik gorakoek jaso ahal izan dezaten Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea aldatzeko	2005.09.20	Euskal Talde Popularra	---

1.3. Herritarrek aurkeztutako lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpen eguna
Herrialde pobretuekiko justizia eta elkartasun gutunerako	2004.03.23	Riviere Aranda, José Benito eta beste batzuk	2004.03.26

* OHARRA: Irakurle, ekimen hauek 2005eko irailaren 22an zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitalpena bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.
Iturria: Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko mahaiaik.

2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpen eguna
Adingabeari Arreta Osoa Eskaintzekoa	2005.05.23	2005.06.06
Nafarroako Kultur Ondareari buruzkoa	2005.06.16	2005.06.27
Diru-laguntzei buruzkoa	2005.06.16	2005.06.27
Mahastizaintza eta Ardogintzaren Antolamenduari buruzkoa	2005.06.23	2005.07.04
Politika Publikoei eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzkoa	2005.07.21	---

2.2. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpen eguna
Hauteskundeen Erregimen Orokorren 5/1985 Lege Organikoko 50. artikulua aldatzeari buruzkoa	2004.06.03	Nafarroako Ezker Batua	2004.06.15
Estatuko hizkuntzak seiluetan eta postako beste elementuetan erabiltzeari buruzkoa	2004.12.01	Nafarroako Ezker Batua	2004.12.20
Ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegilearen bidez onaturiko Gizarte Segurantzako Lege Orokorren testu bateratua aldatzeari buruzkoa	2005.02.17	Convergencia de Demócratas de Navarra eta Unión del Pueblo Navarro	2005.03.07
Gaueko giroa babesteko argiteria ordenatzeari buruzkoa	2005.03.17	Nafarroako Ezker Batua	2005.03.30
Nafarroako Gobernu eta Presidenteari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 23. artikulua aldatzeari buruzkoa	2005.06.03	Nafarroako Ezker Batua	2005.06.20
Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa	2005.06.09	Nafarroako Sozialistak	2005.06.20
Nafar Pirinioa Osotasunean Garatzeari buruzkoa	2005.06.27	Aralar	---

Tesien txokoa*

Administrazio Zuzenbidea

PRIETO ETXANO, Eunate: *Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Iñaki Agirreazkuenaga Zigorraga.

URRUTIA LIBARONA, Iñigo: *El régimen jurídico del euskera en el sistema educativo.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Iñaki Lasagabaster Herrarte.

Eliza Zuzenbidea

MINTEGUÍA ARREGUI, Igor: *Los sentimientos religiosos y la moral pública como límites de la libertad de producción y creación artística.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Adoración Castro Jover.

Enpresa Zuzenbidea

ARRIBA FERNÁNDEZ, M^a Luisa de: *Los fundamentos societarios del Derecho de Grupos.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** José M^a de Eizaguirre Bermejo.

BENGOETXEA ALKORTA, Aitor: *La ratio iuris del artículo 37.2 de la Ley 9/1987, de 12 de junio, de órganos de representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Juan Pablo Landa Zapiráin.

Erromatar Zuzenbidea

CORCOLES OLAIZ, Edorta: *El furtum en la Lex Wisigothorum.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Rosa Mentxaka Elexpe.

RODRÍGUEZ ANTOLÍN, Beatriz: *¿Existió un título VII De vadimoniis en el Edicto del pretor? Argumentos para una nueva Palingenesia de Lenel, EP, §§ 17-24.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Rafael Domingo Oslé.

TAMAYO ERRAZQUIN, José Ángel: *El fideicomiso de alimentos en beneficio de liberos en Digesta y Responsa de Q. Cervidius Scaevola.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Rosa Mentxaka Elexpe.

Konstituzio Zuzenbidea

SOSA PÉREZ, Rosalía Miguelina: *La experiencia constitucional dominicana y la necesidad de formalizar un Derecho procesal constitucional.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Edorta Cobreros Mendazona.

ZELAIA GARAGARZA, Maite: *Las Regiones ante el Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas: el locus standi de las Regiones en los procedimientos jurisdiccionales comunitarios (situación vigente y nuevas perspectivas constitucionales).* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Gurutz Jáuregui Bereciartu.

Lan Zuzenbidea

IRURZUN UGALDE, Koldo Gotzon: *La negociación colectiva en el deporte profesional.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Miguel Cardenal Carro eta Iñaki Bárcena Hinojal.

RODRÍGUEZ SANZ DE GALDEANO, Beatriz: *Obligaciones y responsabilidades de fabricantes, importadores y suministradores en materia de prevención de riesgos laborales.* **U:** Nafarroako Unibertsitate Publikoa. **Ur:** 2004. **Z:** José Luis Goñi Sein.

Merkataritza Zuzenbidea

LASSERRE CAPDEVILLE, Jérôme: *Le secret bancaire: étude de droit comparé (France, Suisse, Luxembourg).* **U:** Paueko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Philippe Conte.

REZENDE MARTINS, Anne Shirley de Oliveira: *La legislación cooperativa brasileña ante las nuevas necesidades de su movimiento cooperativo: análisis de aspectos necesitados de urgente reforma.* **U:** Deustuko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Aitziber Mugarra Elorriaga eta Enrique Gadea Soler.

Nazioarteko Zuzenbidea

FILIBI LÓPEZ, Igor: *La Unión Política Europea como marco de resolución de los conflictos etnonacionales europeos: un enfoque comparado.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Francisco Aldecoa Luzarraga.

GARCÍA LUPIOLA, Asier: *Nacimiento y desarrollo del procedimiento de codecisión (1993-2002): la consolidación del Parlamento europeo como poder legislativo de la Unión Europea.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Francisco Aldecoa Luzarraga.

* Euskal Herriko unibertsitateetan 2003ko bigarren seihilabetea eta 2004. urtean zehar defendatutako Zuzenbideko Doktorego Tesien zerrenda; hau da, Deustuko Unibertsitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta Paueko Unibertsitatean.

Laburdurak:

U: Unibertsitatea
Ur: Urtea
Z: Zuzendaria

MILÁ MORENO, José Otmario: *Hacia una mayor exigibilidad de los derechos de segunda generación: el proyecto de protocolo facultativo al pacto de derechos económicos, sociales y culturales.* **U:** Deustuko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Felipe Gómez Isa.

RÍO VILLAR, Susana del: *La sociedad civil y su progresiva participación en la construcción europea: un proceso constituyente para la Unión, un referéndum para el Demos europeo.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Teresa Aizpún de Bobadilla.

URTIZBEREA SEIN, Igone: *Régimen jurídico de la inmigración y el asilo en la Unión Europea. Especial referencia a la entrada, salida y medidas de control.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Carlos Fernández de Casadevante Romani.

Zuzenbidearen Filosofia

GARCÍA FERMÍN, Franklin Antonio: *Democracia, Constitución y Reección presidencial en la República Dominicana.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Francisco Javier Ezquiaga Ganuzas.

Zuzenbide Publikoa

AGUIRREZABAL GRÜNSTEIN, Maite Arantzazu: *El acceso del consumidor a la justicia: mecanismos procesales para su protección.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Faustino Cordón Moreno.

AYO FERNÁNDEZ, Manuel: *Las garantías de los menores en la Ley Orgánica de Responsabilidad Penal de los Menores.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Ignacio Muñagorri Laguía.

GARRO CARRERA, Enara: *La reparación del daño en la individualización judicial de la pena: Código Penal español y Derecho comparado (Alemania y Austria).* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Adela Asúa Batarrita.

NICOLÁS JIMÉNEZ, Pilar: *La protección jurídica de los datos genéticos de carácter personal.* **U:** Deustuko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Carlos María Romeo Casabona.

PÉREZ MACHÍO, Ana Isabel: *El delito contra la integridad moral del artículo 173 del vigente Código Penal. Aproximación a los elementos que lo definen.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Norberto de la Mata Barranco.

POELEMANS, Maitena: *La sanction dans l'ordre juridique communautaire. Contribution à l'étude du système répressif de l'Union Européenne.* **U:** Paueko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Henry Labayle.

RIBERA ITURBE, Ramón: *El arbitraje como modelo de justicia en la resolución de conflictos.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Antonio M^a Lorca Navarrete.

SUBIJANA ZUNZUNEGUI, Ignacio José: *Del olvido al reconocimiento: el principio de protección de las víctimas en el marco jurídico penal, material y procesal.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** José Luis de la Cuesta Arzamendi.

Zuzenbide Zibila

LABARTHETTE, Davy: *Contrat et prévision. Contribution à l'étude des fonctions du contrat.* **U:** Paueko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Michel Menjucq.

LEVERBE, Emmanuelle: *Essai sur l'altruisme en Droit Civil.* **U:** Paueko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Alain Bernard.

LISO LARREA, María Socorro: *Compraventa y transmisión de la propiedad en el Fuero Nuevo.* **U:** Nafarroako Unibertsitate Publikoa. **Ur:** 2004. **Z:** Teresa Hualde Manso.

PRIETO MOLINERO, Ramiro José: *El riesgo de desarrollo: un supuesto paradójico de la responsabilidad por productos.* **U:** Deustuko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Ricardo de Ángel Yagüez.